

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Vera kontseilariak nabarmendu du “Nafarroako Gobernuaren laguntza-eredu berriak herritarrarengan eta haren benetako beharretan eragina izango duela”

*Hala adierazi du farmaziako langileen laguntza-konpromisoaren aurkezpeneko jardunaldi batean*

Lunes, 16 de abril de 2012

Osasuneko kontseilari Marta Vera Janín-ek farmazialariak herritarrenganako laguntza-konpromisoa aurkezteko ekitaldi batean parte hartu du gaur goizean, Nafarroako Parlamentuak antolatuta. "Pazientea, farmazialariaren laguntza-jardueraren ardatza" izan da saioaren ardatz nagusia, eta bertan parte hartu dute ere, Parlamentuko lehendakari Alberto Catalánek; Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialeko lehendakari Pilar García-k; eta Espainiako Pazienteen Foroko lehendakari Albert Jovell-ek.

Bere agerraldian, Vera Nafarroan ezarriko den laguntza-eredu berriaz aritu da, "laster batean aurkeztuko dena". Bertatik azpimarratu du herritarrari bideratuko zaiola. "Eskaeran eta gaixotasun larrietan, medikalizatzailean, paternalistan eta medikuaren irudian gehiegi enfokatutako eredia atzean utzi, eta herritarra protagonista den beste batera pasa nahi dugu, nor bere osasunaren gaineko erantzukizuna duena. Informatutako, prestatutako eta gaitutako pazienteek emaitza hobekak lortzen dituzte osasunean", aipatu du.

Laguntza-ereduko hobekuntza horiek –kontseilariak aipatu duenez–, "osasunerako eta autozainketarako heziketan osasun-sistemako profesional guztiei eragingo diete, Lehen Mailako Arretan oinarrituta herritarrari errazagoa egingo zaion laguntza-maila moduan". Kontseilariak gogora ekarri du farmaziako profesionalen zeregina funtsezkoa dela heziketako lan horretan; izan ere, informazioa eman behar dute sendagaiei dagokienez eta pazienteen atxikimendua hobetu farmakologia-tratamenduari dagokionez.

Osasun-arloari aplikatutako errezeta elektronikoak eta teknologia berriak bezalako tresnak ere aipatu ditu Vera bere diskurtsoan, eta haiei buruz azpimarratu du "laguntzako sanitarioen eta farmazialarien arteko informazioa eta komunikazioa hobetzen laguntzen dutela, eta horrek herritarren segurtasun handiagoa ekarriko duela".

Ekitaldian ere izan dira: Farmazialarien Elkargoaren Kontseilu Orokorreko idazkari nagusi Ana Aliaga; NUko Farmazia Fakultateko dekanoa Adela López de Cerain eta CINFA Laborategien lehendakari Enrique Ordieres.